Lan-eskaintzen erregistroa 2019ko azaroan

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2019ko azaroan Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 1.054 izan da, urrian baino 770 gutxiago eta joan den urteko azaroan baino 278 gutxiago. Egunean bataz bestez 53 eskaintza erregistratu dira, aurreko hilean baino 23 eskaintza gutxiago egunean.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2019ko azaroan 172 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 379 Gipuzkoan eta 503 Bizkaian. Lan-eskaintzen %47,7 Bizkaiko KAUetan erregistratu dira, % 36 Gipuzkoan eta % 16,3 Araban.

Eskaintzaren Lurralde Historikoa



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 50 murriztu dira eskaintzak (172 eskaintza gutxiago), Bizkaian %44,5 (404 eskaintza gutxiago) eta Gipuzkoan, azkenik, % 33,9 jaitsi dira (194 eskaintza gutxiago).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban 2 eskaintza gutxiago erregistratu dira, % 1,1eko murrizketa; Bizkaian eskaintza kopurua 131tan murriztu da, % 20,9ko murrizketa, eta, Gipuzkoan, berriz, murrizketa 143 eskaintzakoa izan da (-%27,4).

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. 5 eskaintzetik 1 (%20,2), zerbitzuetan erregistratu da (213 eskaintza); industriako lanbide-profilak jarraitzen dio (188 eskaintza, %17,8a). Zientziako teknikarien, laguntzako teknikarien eta ez-kualifikatuen lanbide-profilek ere pisu nabarmena dute erregistratutako lan-eskaintzetan; 175, 164 eta 135 eskaintza erregistratu dira, hurrenez- hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak lehen sektorekoak (11) eta zuzendarienak izan dira (9).

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, eskaintza guztiak murriztu dira. Kopuru absolutuetan gehien murriztu den eskaintza zientizako teknikarien profila izan da (-251 eskaintza, % 58,9ko murrizketa); balio erlatiboetan, aldiz, lehen sektorekoak izan dira gehien murriztu direnak (% 70,3ko murrizketa, 26 eskaintza gutxiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, gehien murriztu direnak, kopuru absolutuetan, industriako profileko eskaintzak izan dira (92 eskaintza gutxiago, %32,9ko murrizketa); kopuru erlatiboetan, hil arteko datuetan bezala, lehen sektorekoak izan dira (% 63,3ko murrizketa, 19 eskaintza gutxiago). Hazi diren eskaintza bakarrak zuzendari eta zerbitzuetako profilekoak izan dira (2 eta eskaintza 1 gehiago).

• KONTRATU MOTA



Erregistratutako lan-eskaintzen % 11,2k kontratu mugagabea eskaini dute; % 88,6k, aldibaterakoa, eta, gainontzeko % 0,2k, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 118 izan dira, 55 gutxiago aurreko hilabetearekin alderatuz, %31,2ko murrizketa. Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten eskaintzak 709 gutxiago izan dira: 934 eskaintza guztira. Kopuru erlatiboetan murrizketa %43,1ekoa da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2019ko azaroan 2 izan dira, aurreko hilean baino 6 gutxiago.

Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen 40 eskaintza gutxiago erregistratu dira (% 25,3 jaitsiera); aldi baterako kontratuen eskaintzak, %20,1 murriztu dira (235 eskaintza gutxiago) eta, azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintza 3 gutxiago izan da.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2019ko azaroan erregistratutako lan-eskaintzen %75,6k (797 eskaintza) 0 tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 12,7k (134) esperientzia-denbora luzeagoa eskatzen du, 6 hiletik 12ra artekoa. Portzentaje txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenek, hain zuzen; % 2,7ko eta % 0,4ko pisua dute, hurrenez- hurren (29 eta 4 eskaintza guztira).



Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza mota guztiak murriztu dira. Gehien murriztu diren eskaintzak, balore absolutuetan, 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (601 eskaintza gutxiago, %43ko murrizketa). Balio erlatiboetan 3 eta 5 urte arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira jaitsiera handiena jasan dutenak (- %50,8, 30 eskaintza gutxiago).

Urte arteko konparaketari dagokionez, hemen ere, eskaintza guztiak jaitsi dira. Gehien murriztu diren eskaintzak, balio absolutuetan, 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (156 eskaintza gutxiago, %16,4ko murrizketa); balio erlatiboetan, aldiz, 6 eta 12 hilabete artekoa eskatzen dutenak izan dira (-%34,6, 71 eskaintza gutxiago). Bestetik, murrizketa txikiena jasan duten eskaintza motak, bai kopuru absolutuetan eta baita erlatiboetan ere, 3 eta 5 urte arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (4 eskaintza gutxiago, %12,1eko murrizketa).

• LANALDI MOTA

Analisiarekin hasi baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 14,2k zehazten du datu hori (1.054 eskaintzetatik 194). 194 eskaintza horietatik, 150 lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 44ak lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko 50 eskaintza gutxiago erregistratu dira urriarekin alderatuz. Lanaldi partzialeko eskaintzak 24 gutxiago izan dira.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko 36 eskaintza gutxiago izan dira (% 19,6ko murrizketa); lanaldi partzialeko eskaintzen kasuan, 18 gutxiago erregistratu dira (% 29ko murrizketa). Aztertutako hiru hilabeteetan (2018ko urria, 2019ko iraila eta 2019ko urria), lanaldi partzialeko eskaintzen pisu handiena 2018ko azaroan izan zen, %22ko pisuarekin, lanaldi mota zehazten duten eskaintza guztien artean.

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Erregistratutako eskaintzen % 0,8 izan dira ABLEen bitartez kudeatu direnak, 1.054 eskaintzetatik 8. Murrizketa nabarmena da, izan ere, aurreko hilean, 64 izan ziren eta 2018ko azaroan 28.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 82,2k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 1.054 eskaintzetatik 188k soilik zehaztu dute.

188 eskaintza horietatik, 79k LHko prestakuntza maila eskatu dute (%42k); gehien eskatu den prestakuntza maila izan da. Horiei jarraiki, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak daude, 53 eskaintza. Azken lekuan, batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude, erregistratutako 16 eskaintzekin, eta % 8,5eko pisua dute erregistratzeko orduan adierazle hau zehaztu duten 188 eskaintzen artean.



Eboluzioari dagokionez, esan beharra dago azaroan, urrian baino lan-eskaintza gutxiagotan zehaztu dela prestakuntza maila (188 eskaintza azaroan; 378 urrian), eta hauen pisua eskaintza guztien artean ere txikiagoa izan da (%17,8 azaroan eta % 20,7 urrian).

Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, eskaintza mota guztiak murriztu dira. Unibertsitateko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira gehien murriztu direnak, 93 eskaintza gutxiago (% 63,7ko murrizketa).

2018ko azaroarekin alderatuz, eskaintza mota guztiak murriztu dira, oinarrizko ikasketak eskatzen dituztenak izan ezik; hauek 8 eskaintzatan hazi dira (% 25eko hazkundea). Gehien murriztu direnak unibertsitate ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (44 eskaintza gutxiago, % 45,4ko murrizketa), bai balio absolutu eta erlatiboetan ere.

- ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen den jarduera administrazio publikoa izan da, eskaintzen % 15,4ko pisuarekin (162 eskaintza guztira). Garrantzitsuak izan dira ere merkataritza eta industria, %13,3 eta %12,1eko pisuarekin, hurrenez- hurren (140 eta 128 lan-eskaintza, 1.054 eskaintza guztietatik, hurrenez hurren).

Aurreko hilari erreparatuz gero, gehien murriztu diren eskaintzak, kopuru absolutuetan, administrazio publikokoak izan dira (282 eskaintza gutxiago, %63,5eko murrizketa). Informazio eta komunikazio jardueretako eskaintzak izan dira gehien murriztu direnak kopuru erlatiboetan (% 67,9ko murrizketa, 38 eskaintza gutxiago). Gehien hazi direna argindar horniketakoak izan dira (7 eskaintza gehiago, %700eko hazkundea).

Urte arteko saldoari erreparatuz, behera gehien egin dutenak, kopuru absolutuetan, administrazio publikoko eskaintzak izan dira baita ere (-75); kopuru erlatiboetan, aldiz, erauzketa industriakoak izan dira (-2, -% 100). Bestalde, argindar horniketakoak izan dira gehien hazi direnak, (8 eskaintza aurten, bat bera ere ez iazko azaroan).